

## Ikastaroak

Euskal Etxeak hiruhilekoak diren tailer eskaintza zabala du. Tailerretan parte hartu ahal izateko **bazkide izatea ezinbestekoa da**; horretaz gainera **hiruhilekoak 30€ balio du** (ordubeteko ikastaroentzako, luzeagoak badira proportzioan igoko da matrikula):

- Trikitixa
- Pandero
- Txalaparta
- Dantza 1 (hastapenak)
- Dantza 2 (aurreratua)



Tailer batek aurrera egin dezan gutxienez 6 ikasle matrikulatu beharko dira bertan. Izena emateko epea **irailaren 1etik 23ra** da. Tailerrak **urriaren 4tik aurrera** hasiko dira. Ikasleak etor daitezkeen ordutegiak ikusi ondoren ezarriko dira tailerren ordutegiak. Behin matrikulatuta, gutxienerako kide kopurura iritsiko ez bagina edo etorri ezingo bazina, ordaindutako matrikula itzuliko genizuke.

## Taldeak

### Dantza taldea

Gure elkarteak badu talde iraunkor bat ere, txikitatik dantzan aritu diren neska-mutilek osatutakoa. Taldeko partaide izateko ez da baldintzarik bete behar, baina bazkide egitea eskertzen da, Euskal Etxeak zein taldeak dituzten gastuei aurre egiteko:



### Mendi taldea

Talde honetako partaideek hilero irteera bat egiten dute mendira. Informazio gehiago jasotzeko hona idatzi: [bartzelonamt@gmail.com](mailto:bartzelonamt@gmail.com)



Matrikulatu, informazio gehiago eskatu edota tailer berriren bat proposatu nahi izanez gero, pasa zaitetzte kultur etxetik, **933102200**ra deitu edo idatzi [barcelona@euskaletxea.cat](mailto:barcelona@euskaletxea.cat) helbidera.